Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA ETA BERRIKUNTZA SAILA

4985

AGINDUA, 2009ko uztailaren 27koa, Industria eta Berrikuntzako sailburuarena. Horren bitartez, presio-ekipoen Erregelamenduari (PEE/REP) buruzko arauak eman dira.

Presio-ekipoen erregelamendua eta haren jarraibide tekniko osagarriak onartzen dituen abenduaren 12ko 2060/2008 Errege Dekretuak presio-aparatuei buruzko apirilaren 4ko 1244/1979 Errege Dekretua ordeztu du eta oinarrizko arau-esparru berria sortu du non presio-ekipoen erabilera egokirako segurtasun-arau eta -irizpideak arautzen diren, ekipoen instalazio, aldizkako ikuskapen, konponketa eta aldaketarako betekizunak adieraziz.

Erregelamendu berriak, alderdi askotan, autonomia-erkidegoei jarduteko eremua uzten die, autonomia-erkidegoek euren lurralde-eremuan aplikatu beharreko alderdi batzuk zehaztu eta osatu ditzaten.

Kontuan izan behar da autonomia-erkidego honetan instalazioak abian jartzeko erregulazioa dagoeneko badagoela: 2000ko abenduaren 26ko Agindua (2001-01-24ko EHAA); agindu hori bi agindu hauen bidez aldatu da: 2001eko urriaren 1eko Agindua (2001-10-18ko EHAA) eta hozteko instalazioak eta presio-aparatuak abian jartzeko izapideak egiteko prozedura ezartzen duen 2005eko irailaren 1eko Agindua (2005-10-17ko EHAA).

Bestalde, industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuak eta hori garatzen duen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2006ko apirilaren 10eko Aginduak, enpresek eremu horretan jarduteko bete behar dituzten betekizunak ezartzen dituzte.

Ondorioz, Industria eta Berrikuntza Sailak, hala eskatzen duten alderdietan, aipatutako Erregelamendua garatzen duen eta bestetik, autonomia-erkidego honetan dagoen araudia aldatzen eta argitzen duen arau bat emateko beharra ikusi du, arau-esparru berri honetara egokitzeko helburuarekin.

Aipatutako lege-xedapenak eta oro har aplikatzekoak diren eta horiekin bat datozen gainerako arauak ikusi dira, eta honako hau

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA E INNOVACIÓN

4985

ORDEN de 27 de julio de 2009, del Consejero de Industria e Innovación, por la que se dictan normas en relación con el Reglamento de equipos a presión (REP).

El Real Decreto 2060/2008, de 12 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de equipos a presión y sus instrucciones técnicas complementarias, ha venido a sustituir al Real Decreto 1244/1979, de 4 de abril, sobre aparatos a presión y ha creado el nuevo marco normativo básico en el que se regulan las normas y criterios de seguridad para la adecuada utilización de los equipos a presión, indicando los requisitos para la instalación, inspecciones periódicas, reparación y modificación de los mismos.

Este nuevo Reglamento deja, en muchos aspectos, campo de actuación a las Comunidades Autónomas para que, en su propio ámbito territorial, determinen y complementen algunos aspectos de necesaria aplicación.

Debe tenerse en cuenta así mismo que en esta Comunidad Autónoma existe una regulación para la puesta en servicio de instalaciones (Orden de 26 de diciembre de 2000, BOPV 24-01-2001, modificada por Orden de 1 de octubre de 2001, BOPV 18-10-2001 y Orden de 1 de septiembre de 2005, BOPV 17-10-2005, que establece el procedimiento de tramitación para la puesta en servicio de determinadas instalaciones frigoríficas y de aparatos a presión).

Por otra parte, el Decreto 63/2006, de 14 de marzo, por el que se regulan los carnés de cualificación individual y las empresas autorizadas en materia de seguridad industrial y la Orden de 10 de abril de 2006 de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo por la que se desarrolla, establecen los requisitos de estas empresas para poder realizar actuaciones en este campo.

Consecuentemente, el Departamento de Industria e Innovación ha visto la necesidad de dictar una norma que desarrolle, en los aspectos que así lo requieren, el citado Reglamento y que, por otra parte, modifique y matice la normativa existente en esta Comunidad Autónoma para adaptarla a ese nuevo marco normativo.

Vistas las disposiciones legales citadas y otras de general y concordante aplicación

XEDATU DUT:

1. artikulua.- Instalazioak abiaraztea.

1.- 2000ko abenduaren 26ko Aginduan (Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena da, industria-instalazioak abiarazteari buruzko prozedura sinplifikatzeari buruzkoa —2001-01-24ko EHAA—, eta Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2001eko urriaren 1eko Aginduak —2001-10-18ko EHAA— aldatu zuen) eta hozteko instalazioak eta presio-aparatuak abian jartzeko izapideak egiteko prozedura ezartzen duen 2005eko irailaren 1eko Aginduan (2005-10-17ko EHAA) ezarritako prozeduraren arabera abiaraziko dira presio-ekipoen instalazioak.

2.- Presio-ekipoen Erregelamenduko (aurrerantzean PEE) 5.3 artikuluari dagokionez, instalazio-proiektua behar duten instalazioek ez dute behar kontrol-organismo baimendu batek kokapenaren lekuan probak ikuskatzea.

3.- 1. eta 2. eranskinetan instalazio-ziurtagiriari eta proiektua behar duten instalazioetarako abian jartzeko eskaerari dagozkion dokumentuak adierazten dira.

Dokumentu horietan, I. kategoriako edo kategoria handiagoko ontziak, multzo edo hodiak barne hartuko dira.

4.- 3. eranskinean dokumentazioa betetzerakoan erabili behar diren ekipo eta fluido motak adierazten dira.

2. artikulua.- Baimendutako enpresak.

1.- Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartela eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretua (2006-04-12) garatzen duen 2006ko apirilaren 10eko Aginduan (2006-05-15) ezarritakoari jarraituko diote enpresek, baita agindu honen amaierako xedapenetan adierazitako aldaketari ere.

2.- Presio-aparatuei buruzko apirilaren 4ko 1244/1979 Errege Dekretuaren aplikazioan baimendutako enpresek, PEE indarrean jartzen denetik jardun ahal izateko, erregelamendu berriaren I. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

3.- Proiektua duten instalazio berrietan, behin hura bukatuta, enpresa instalatzaileak dagozkion identifikazio-ekipoak finkatu beharko ditu ekipoetan.

4.- Ekipoen edo instalazioen konponketak edo aldaketak eginez gero, jarduneko enpresak dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du industriaren alorrean eskumena duen Lurralde Bulegoan, jarduna amaitu eta 15 eguneko epearen barruan, eta baimendutako kontrol-organismoaren ziurtagiria gaineratu beharko du, hala badagokio.

DISPONGO:

Artículo 1.– Puesta en servicio de instalaciones.

1.– La puesta en servicio de las instalaciones de equipos a presión se realizará conforme al procedimiento establecido en la Orden de 26 de diciembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, de simplificación del procedimiento para la puesta en servicio de instalaciones industriales (BOPV 24-01-2001), modificada por Orden de 1 de octubre de 2001, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo (BOPV 18-10-2001) y la Orden de 1 de septiembre de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, que establece el procedimiento de tramitación para la puesta en servicio de determinadas instalaciones frigoríficas y de aparatos a presión (BOPV 17-10-2005).

2.– En relación con el artículo 5.3 del Reglamento de equipos a presión (en adelante REP), las instalaciones que requieren proyecto de instalación no necesitan la supervisión de las pruebas en el lugar del emplazamiento por un organismo de control autorizado.

3.– En los anexos 1 y 2 se indican los modelos de los documentos correspondientes al certificado de instalación y a la solicitud de puesta en servicio para las instalaciones que necesitan proyecto.

En dichos documentos se incluirán los recipientes, conjuntos o tuberías de categoría I o superior.

4.– En el anexo 3 se indican los tipos de equipos y de fluidos a utilizar en la cumplimentación de la documentación.

Artículo 2.– Empresas autorizadas.

1.– Las empresas se atendrán a lo indicado en el Decreto 63/2006, de 14 de marzo (BOPV 12-04-2006) y la Orden de 10 de abril de 2006 (BOPV 15-05-2006), sobre carnés de cualificación individual y empresas autorizadas en materia de seguridad industrial, así como a la modificación indicada en la Disposiciones finales de la presente Orden.

2.– Las empresas autorizadas en la aplicación del Real Decreto 1244/1979, de 4 de abril, sobre aparatos a presión, para poder actuar desde la entrada en vigor del REP, deberán acreditar el cumplimiento de las condiciones indicadas en el anexo I del nuevo reglamento.

3.– En las nuevas instalaciones con proyecto, una vez finalizada la misma, la empresa instaladora deberá fijar las correspondientes placas de identificación en los equipos.

4.– En caso de realizar reparaciones o modificaciones de equipos e instalaciones, la empresa actuante deberá presentar el correspondiente certificado en la Oficina Territorial competente en materia de Industria en el plazo de 15 días desde la finalización de la actuación, debiendo acompañarse, en su caso, el certificado del organismo de control autorizado.

3. artikulua.- Presio-ekipoen identifikazio-plakak.

1.- PEEaren 2. eta 3. eranskinetan adierazitako instalazio-plakak eta aldizkako ikuskapenak industriaren alorrean eskumena duen Lurralde Bulegoak emango ditu.

2.- Proiektua duten instalazio berrien kasuan, industriaren alorrean eskumena duen Lurralde Bulegoak plakak entregatuko ditu, enpresa instalatzaileak dagozkion ekipoetan ipini ditzan.

3.- Proiekturik gabeko instalazio berrien edo PEE indarrean jartzerakoan zeuden ekipoen kasuan, B edo C mailako aldizkako ikuskapenetan diharduen agenteak industriaren alorrean eskumena duen Lurralde Bulegoari ekipoen identifikazio-plakak eskatuko dizkio, eta bete egingo ditu, baita ekipoetan ezartzen direla egiaztatu ere.

4.- Plakak ekipoan ezarri behar dira, ahal bada behintzat horri finkatuta edo eskura dagoen gune batean.

5.- 4. eranskinean adierazten da zein plaka-eredu erabil daitezkeen, eta 5. eranskinean plakak emateko eskaera-orria.

4. artikulua.- Aldizkako ikuskapenak.

1.- Ekipo eta instalazioen B edo C mailako aldizkako ikuskapenak egiten dituen agenteak 10. eranskinean adierazitako egiaztagiria egingo du, eta industriaren alorrean eskumena duen Lurralde Bulegora dagokion ikuskapenaren emaitza bidali beharko du horretarako ezartzen den bidea erabiliz, salbu eta arnas ekipoen botilen edo gas industrialen aldizkako ikuskapenetan.

2.- Hasierako diseinuan dagozkionak baino arrisku txikiagoko baldintzetan erabilitako ekipoen kasuan, presio txikiagoak dituztelako edo arrisku txikiagoa duten fluidoak erabiltzen dituztelako, aldizkako ikuskapenak egiterakoan zerbitzuko gehieneko presioaren (Zgp/Pms) balioa erabili ahal izango da gehieneko presio onargarriaren (PS) ordez eta ekipoaren kategoria berria erabilera-parametro berriak kontuan hartuz, segurtasungailuen tara parametro horietara egokitzen bada. Kasu horretan, erabilera-baldintza berriak egiaztatu beharko dira presio-ekipoaren edo instalazioaren dagokion instalazio- edo aldaketa-egiaztagiriaren bitartez, dagokion eranskinean adierazitako dokumentuak erabiliz.

Era berean, aldizkako ikuskapenaren data kalkulatzeko, edozein kasutan instalazio-egiaztagiriaren data erabili ahal izango da.

3.- ITC EP-1ean barne hartutako I. maila edo maila horretan sailkatu daitezken ur beroko eta fluido termikoko galdarek, PEEaren III. eranskineko 2. taulan adierazitako aldizkakotasun eta agenteekin egin beharko dituzte aldizkako ikuskapenak.

Artículo 3.– Placas de identificación de los equipos a presión.

1.– Las placas de instalación e inspecciones periódicas indicadas en los anexos 2 y 3 del REP serán facilitadas por la correspondiente Oficina Territorial competente en materia de Industria.

2.– En caso de nuevas instalaciones con proyecto, la Oficina Territorial competente en materia de Industria entregará las placas, para que la empresa instaladora proceda a fijarlas en los correspondientes equipos.

3.– En caso de nuevas instalaciones sin proyecto o de equipos existentes a la entrada en vigor del REP, el agente actuante en las inspecciones periódicas de nivel B o C solicitará a la correspondiente Oficina Territorial competente en materia de Industria las placas de identificación de los equipos, debiendo cumplimentarlas y comprobar que sean fijadas en los mismos.

4.– Las placas deberán colocarse en el equipo, preferentemente fijadas al mismo o colocadas en una zona próxima accesible.

5.– En el anexo 4 se indican los modelos de placas a utilizar y en el anexo 5 el modelo de solicitud de otorgamiento de placas.

Artículo 4.– Inspecciones periódicas.

1.– El agente actuante en la realización de las inspecciones periódicas de nivel B o C de los equipos e instalaciones emitirá el certificado indicado en el anexo 10, debiendo remitir el resultado a la correspondiente Oficina Territorial competente en materia de Industria por el medio que se establezca al efecto, excepto en el caso de inspecciones periódicas de botellas de equipos respiratorios o de gases industriales.

2.– En caso de equipos utilizados en condiciones de menor riesgo que los correspondientes a los de su diseño inicial, por estar sometidos a presiones inferiores o por utilizar fluidos menos peligrosos, en la realización de las inspecciones periódicas podrá utilizarse el valor de la presión máxima de servicio (Pms) en lugar de la presión máxima admisible (PS) y la nueva categoría del equipo teniendo en cuenta los nuevos parámetros de utilización, si el tarado de los accesorios de seguridad corresponde a dichos parámetros. En este caso, será necesario certificar las nuevas condiciones de uso mediante el correspondiente certificado de instalación o de modificación de equipo a presión o de la instalación, utilizando los documentos indicados en el anexo correspondiente.

De igual forma, para el cálculo de la fecha de inspección periódica, podrá utilizarse en cualquier caso la fecha del certificado de instalación.

3.– Las calderas de agua caliente y fluido térmico de categoría I o asimiladas a dicha categoría incluidas en la ITC EP-1 deberán realizar inspecciones periódicas con las periodicidades y los agentes indicados en la tabla 2 del anexo III del REP.

5. artikulua.- Konponketak eta aldaketak.

1.- Presiopean dauden ekipoen zatiak ukitzen dituzten konponketak kategoria egokiko konponketa-enpresak egiaztatu beharko ditu, 6. eranskinean adierazitako egiaztagiri-eredua erabiliz.

2.- Berriro ebaluatu behar ez diren presio-ekipoen aldaketak, PEEaren 8.1.b) artikuluan adierazitakoaren arabera, 7. eranskinean adierazitako egiaztagiri-eredua erabiliz egiaztatuko dira.

3.- Instalazioen aldaketak 8. eranskinean adierazitako egiaztagiri-eredua erabiliz egiaztatuko dira.

Instalazioak, behin aldatu ondoren, PEEaren II. eranskineko 1. atalean adierazitako betekizunak betetzen baditu, instalazio osoaren proiektua aurkeztu beharko da, edo bestela, aldaketa-proiektua.

4.- Fabrikatzaileak 24 orduko tarteekin zeharkako zaintzarekin funtzionatzeko diseinatutako galdarek zaintza-sistema hori erabili ahal izango dute industriaren alorrean eskumena duen Lurralde Bulegoan 7. eranskinean adierazitako aldaketa-egiaztagiria aurkezten bada eta baimendutako kontrol-organismo baten egiaztapen-ziurtagiria gaineratzen bada, bertan ziurtatuz dagozkion kontrol-sistemen erabilgarritasuna eta operatibitatea (erreferentzia gisa, UNE EN 12953-6 eta 12952-6 arauan beharrezko ekipamendu-betekizunak adierazten dira).

Ez badaude 24 orduko tarteekin zeharkako zaintzarekin funtzionatzeko diseinatuta, fabrikatzaileak aurreikusi gabeko sistemak inkorporatu behar badira, aldaketa garrantzitsutzat joko da, PEEaren lehen xedapen gehigarriko g) atalaren arabera.

6. artikulua.- Baimendutako kontrol-organismoak.

1.- Jarduketak aldez aurretik jakinaraztea. B edo C mailako aldizkako ikuskapenen burutzapenaren berri eman beharko zaio industriaren alorrean eskumena duen Lurralde Bulegoari, gutxienez ere 2 laneguneko aurrerapenarekin. Horretarako, informazioa bidaliko da, ahal bada bide elektronikoz, 9. eranskinean barne hartzen diren datuak adieraziz.

2.- Presio-ekipoaren identifikazio-plaka. Kontrol-organismoak, aldizkako ikuskapena amaitzen denean, ekipoak plaka behar bezala beteta duela egiaztatu beharko du.

3.- Ikuskapen-egiaztagiria. B edo C mailako aldizkako ikuskapena amaitutakoan, kontrol-organismoak dagokion egiaztagiria egin beharko du, eta industriaren alorrean eskumena duen Lurralde Bulegora dagokion ikuskapenaren emaitza bidali beharko du horretarako ezartzen den bidea erabiliz.

4.- Jardunen urteko txostena. Kontrol-organismoak egin diren jardunak adierazten dituen txosten bat bidali

Artículo 5.– Reparaciones y modificaciones.

1.– Las reparaciones que afecten a las partes de los equipos sometidas a presión deberán certificarse por la empresa reparadora de la categoría adecuada, utilizando el modelo de certificado indicado en el anexo 6.

2.– Las modificaciones de los equipos a presión que no requieran ser reevaluados, de acuerdo con lo indicado en el artículo 8.1.b) del REP, se certificarán utilizando el modelo de certificado indicado en el anexo 7.

3.– Las modificaciones de las instalaciones se certificarán utilizando el modelo de certificado indicado en el anexo 8.

En caso de que la instalación una vez modificada cumpla los requisitos indicados en el apartado 1 del anexo II del REP, deberá presentarse proyecto de la instalación completa o, en su caso, de modificación.

4.– Las calderas existentes que estén diseñadas por el fabricante para funcionar con vigilancia indirecta a intervalos de 24 horas, podrán utilizar dicho sistema de vigilancia si se presenta en la correspondiente Oficina Territorial competente en materia de Industria el certificado de modificación indicado en el anexo 7 y se acompaña el certificado de comprobación de un organismo de control autorizado en el que acredite la disponibilidad y operatividad de los correspondientes sistemas de control (como referencia, en la norma UNE EN 12953-6 y 12952-6 se indican los requisitos de equipamiento necesarios).

En caso de no estar diseñadas para vigilancia indirecta a intervalos de 24 horas, si deben incorporarse sistemas no previstos por el fabricante, se considerará como modificación importante, de acuerdo con el apartado g) de la disposición adicional primera del REP.

Artículo 6.– Organismos de control autorizados.

1.– Notificación previa de actuaciones. La realización de inspecciones periódicas de nivel B o C deberá notificarse a la Oficina Territorial competente en materia de Industria con al menos 2 días hábiles de antelación. A estos efectos, se remitirá información, preferentemente por vía electrónica, indicando los datos que se incluyen en el anexo 9.

2.– Placa de identificación del equipo a presión. El organismo de control, una vez finalizada la inspección periódica, deberá comprobar que el equipo dispone de la placa debidamente cumplimentada.

3.– Certificado de inspección. Finalizada la inspección periódica de nivel B o C, el organismo de control deberá emitir el correspondiente certificado, utilizando el modelo indicado en el anexo 10, y enviar el resultado a la correspondiente Oficina Territorial competente en materia de Industria por el medio que se establezca al efecto.

4.– Informe anual de actuaciones. El organismo de control deberá remitir a la correspondiente Oficina Te-

beharko du industriaren alorrean eskumena duen Lurralde Bulegora, urte bakoitzeko otsaila baino lehen.

5.- Jardunen urteko estatistika. Industriaren alorrean eskumena duen Zuzendaritzara jardunen estatistika bat bidali beharko da urte bakoitzeko otsaila baino lehen, horretarako ezartzen den formatuan.

7. artikulua.- Baldintza bereziak.

1.- PEEan edo Jarraibide Tekniko Osagarrietan adierazitakoez bestelako soluzioak hartu nahi diren instalazioetan, PEEaren 12. artikuluan adierazitakoaren arabera, Industriaren alorrean eskumena duen Zuzendaritzaren onespen-ebazpena lortu beharko da, ekipoen instalazioa edo ikuskapenak egin baino lehenago.

Horretarako, Industriaren alorrean eskumena duen Lurralde Bulegoan dagokion eskaera aurkeztu beharko dute, eta baimendutako kontrol-organismo baten aldeko txostena gaineratu beharko dute, bertan adieraziz betetzen ez den xedapena eta proposatzen diren neurri alternatiboen edo aldaketen egokitasuna.

2.- Kasu berezietan, Industriaren alorrean eskumena duen Lurralde Bulegoak titularrei eskatu ahal izango die ekipo edo instalazio jakin batzuetan proba edo ikuskapen gehigarriak egiteko.

8. artikulua.- Instalazioak geldiaraztea segurtasun-arrazoiak direla medio.

Instalazioetan diharduen agenteetakoren batek (enpresa instalatzaileak, konpontzaileak edo kontrol-organismoak) pertsonei, florari, faunari, ondasunei edo ingurumenari kalteak eragiteko arrisku larria eta hurrekoa ekar dezaketen egoerak detektatzen dituenean, instalazioa edo ekipoa badaezpada geldiarazi egin beharko du, Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariaren 2001eko martxoaren 26ko Instrukzioaren arabera (2001-05-09ko EHAA).

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– PEEaren aplikazioz dagozkion Lurralde Bulegoetan inskribatu behar diren egungo presio-ekipoek honako irizpide hauek hartu beharko dituzte kontuan:

1.- Funtzionamenduan dauden presio-ekipoen inskripzioa B edo C mailako ikuskapena egitea egokitzen zaienean egingo da.

2.- Presio-aparatuei buruzko apirilaren 4ko 1244/1979 Errege Dekretuak onartutako presio-aparatuei buruzko aurreko erregelamenduaren pean ez zeuden eta PEE berriaren aplikazioz aldizkako ikuskapenak egin behar dituzten presio-aparatuak industriaren alorrean eskumena duen Lurralde Bulegoan inskribatu beharko dira, dagokion identifikazio-plaka eduki dezaten.

3.- 2002ko maiatzaren 29a baino lehen, hau da, 769/1999 ED (1999-05-31ko BOE) indarrean jarri zen

rritorial competente en materia de Industria, antes de fin de febrero de cada año, un informe en el que indique las actuaciones realizadas.

5.– Estadística anual de actuaciones. Deberá remitirse a la Dirección competente en materia de Industria, antes de fin de febrero de cada año, una estadística de actuaciones en el formato que se establezca al efecto.

Artículo 7.– Condiciones especiales.

1.– En las instalaciones donde se pretenda adoptar soluciones diferentes a las indicadas en el REP o en sus ITC, de acuerdo con lo indicado en el artículo 12 del REP, deberán obtener la correspondiente Resolución de aprobación de la Dirección competente en materia de Industria, con anterioridad a la realización de la instalación o de las inspecciones de los equipos.

A estos efectos, deberán presentar la correspondiente solicitud en la Oficina Territorial competente en materia de Industria, debiendo acompañar un informe favorable de un organismo de control autorizado en el que se identifique la disposición incumplida y la idoneidad de las medidas alternativas o sustitutorias propuestas.

2.– En casos excepcionales, la Oficina Territorial competente en materia de Industria podrá requerir a los titulares la realización de pruebas o inspecciones adicionales en determinados equipos o instalaciones.

Artículo 8.– Paralización de instalaciones por razones de seguridad.

Cuando alguno de los agentes actuantes en las instalaciones (empresas instaladoras, reparadoras u organismos de control) detecten situaciones que puedan implicar un riesgo grave e inminente de posibles daños a personas, flora, fauna, bienes o al medio ambiente, deberán paralizar cautelarmente la instalación o el equipo, de acuerdo con la Instrucción de 26 de marzo de 2001 del Director de Administración de Industria y Minas (BOPV 09-05-2001).

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– Los equipos a presión existentes que por aplicación del REP necesiten ser inscritos en las correspondientes Oficinas Territoriales deberán tener en cuenta los siguientes criterios:

1.– La inscripción de los equipos a presión en funcionamiento se realizará cuando les corresponda realizar la inspección de nivel B o C.

2.– Aquellos equipos a presión que no estaban afectados por el anterior reglamento sobre aparatos a presión, aprobado por Real Decreto 1244/1979, de 4 de abril, y que por aplicación del nuevo REP necesiten realizar inspecciones periódicas, deberán ser inscritos en la correspondiente Oficina Territorial competente en materia de Industria, para que puedan disponer de la correspondiente placa de identificación.

3.– Los equipos a presión en uso fabricados con anterioridad al 29 de mayo de 2002, fecha de entrada en

eguna baino lehen fabrikatutako eta erabileran dauden ekipoek, edozein arrazoi dela medio aurreko erregelamenduan adierazitako plakarik ez badute, Industriaren alorrean eskumena duen dagokion Lurralde Bulegoan inskribatu ahal izango dira, etengabe erabiltzen direla egiaztatzen badute eta honako dokumentazio hau aurkezten badute:

a) Eskatzailearen deklarazioa, aparatua zein urteaz geroztik erabiltzen duen adieraziz, baita etengabe edo segurtasunez erabili dela ere, erabilera-baldintzak deskribatuz (presioa eta abar).

b) Teknikari tituludun eskudunaren egiaztagiria Erregelamenduaren edo Jarraibide Tekniko Osagarriaren preskripzio teknikoak betetzeari buruz, eta horri gaineratuko zaio ekipoaren egokitasuna deskribatu, kalkulatu eta justifikatzen duen dokumentazio teknikoa.

c) Kontrol-organismo baten C mailako aldizkako ikuskapeneko egiaztagiria, ekipoa segurua dela adieraziz.

d) Ekipoaren instalazioak erregelamenduzko betekizunak betetzen dituela adierazten duen egiaztagiria:

– Instalazioak proiektua behar badu, Egiaztagiria teknikari tituludun eskudun batek egin beharko du, eta horri gaineratuko dio ekipoaren egokitasuna deskribatu, kalkulatu eta justifikatzen duen dokumentazio teknikoa.

Adierazitako dokumentazio teknikoak eta egiaztagiriak ekipoaren eta instalazioaren diseinuaren alderdiak barne hartu ahal izango dituzte.

Teknikariaren egiaztagiria dagokion Elkargo Ofizialak ontzat eman beharko du.

– Dagokion erregelamenduaren arabera legeztatzeko proiekturik behar ez duen instalazio batean kokatuta badago ekipoa, enpresa instalatzaile baimendu baten egiaztagiria aurkeztuko da, bertan adieraziz dagokion Jarraibide Tekniko Osagarriaren edo Erregelamenduaren preskripzio teknikoak betetzen direla.

Bigarrena.– Pertsona fisikoei eta pertsona juridikoen ordezkariei administrazioarekin agindu honen aplikazioaren ondorioz dituzten harreman guztietan euskara nahiz gaztelania ahoz eta idatziz erabiltzeko eskubidea bermatzen zaie.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.– Presio-aparatuei buruzko apirilaren 4ko 1244/1979 Errege Dekretuaren aplikazioan baimendutako enpresa instalatzaileek 2060/2008 ED indarrean jartzean ez badituzte instalazioak amaitu, horiek egiaztatu ahal izango dituzte abian jartzeko.

Bigarrena.– ITC MIE AP-18ren eremuan errekargarako edo ikuskapen bisualerako edo aldizkako ikuskapenerako baimendutako enpresek beren jarduerarekin jarraitu ahal izango dute, egun duten baimenaren indarraldia amaitu arte.

vigor del RD 769/1999 (BOE 31-05-1999), que por distintas razones carezcan de las placas oficiales de diseño indicadas en el anterior reglamento, podrán inscribirse en la correspondiente Oficina Territorial competente en materia de Industria, si acreditan su utilización continuada y presentan la siguiente documentación:

a) Declaración del solicitante indicando el año desde el que se ha venido utilizando el aparato, así como que su utilización se ha realizado de forma continuada y segura, describiendo las condiciones de uso (presión, etc.).

b) Certificado de persona técnica titulada competente sobre el cumplimiento de las prescripciones técnicas del Reglamento o la ITC y al que se acompañará la documentación técnica que describa, calcule y justifique la idoneidad del equipo.

c) Certificado de inspección periódica de nivel C de un organismo de control indicando que el mismo es seguro.

d) Certificado de que la instalación del equipo cumple los requisitos reglamentarios:

– Si la instalación requiere proyecto, el Certificado será realizado por una persona técnica titulada competente, al que se acompañará la documentación técnica que describa, calcule y justifique la idoneidad de la instalación.

La documentación técnica indicada así como la certificación podrá abarcar conjuntamente los aspectos de diseño del equipo y de la instalación.

El certificado deberá estar visado por el Colegio Oficial correspondiente.

– Si el equipo está ubicado en una instalación que, según la reglamentación correspondiente, no requiere proyecto para su legalización, se presentará certificado de una empresa instaladora autorizada que indique que se cumplen las prescripciones técnicas de la correspondiente I.T.C. o del Reglamento.

Segunda.– Se garantiza el derecho de las personas físicas y los representantes de las personas jurídicas a la utilización a nivel oral y escrito tanto del euskara como del castellano en todas sus relaciones con la administración, que sean consecuencia de la aplicación de esta Orden.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.– Las empresas instaladoras autorizadas en la aplicación del Real Decreto 1244/1979, de 4 de abril, sobre aparatos a presión que a la entrada en vigor del RD 2060/2008 no hayan finalizado las instalaciones, podrán certificar las mismas para su puesta en servicio.

Segunda.– Las empresas autorizadas en el ámbito de la ITC MIE AP-18 para la recarga o la inspección visual o periódica podrán continuar su actividad hasta la finalización de la vigencia de su actual autorización.

Hirugarrena.– Lehendik dauden energia elektrikoa sortzen duten zentralak, ITC MIE AP-16k arautuak daudenak, ekipoen aldizkako inspekzioetako aurrez ikusitako data-plana, dagokien Lurralde Bulegoan, aurkeztu beharko dute PEE indarren sartu eta 4 hilabeteko epe barruan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Presio-aparatuei buruzko Erregelamendua egoki aplikatzeko arauak ematen dituen 1987ko martxoaren 30eko Agindua (1987-05-02ko EHAA) indargabetzen da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– 1.- Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretua garatzen duen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2006ko apirilaren 10eko Aginduaren VI. eranskina aldatzen da eta, hortaz, honela geratuko dira idatzita presio-ekipoen erregelamenduarekin erlazionatutako enpresen kategoriak:

– Presio-ekipoen enpresa instalatzailea. 1. kategoria (instalazio-proiekturik behar ez duten ekipoak soilik).

– Presio-ekipoen enpresa instalatzailea. 2. kategoria (edozein ekipo mota).

– Presio-ekipoen enpresa instalatzailea. 1. kategoria (instalazio-proiekturik behar ez duten ekipoak soilik).

– Presio-ekipoen enpresa instalatzailea. 2. kategoria (edozein ekipo mota).

– Arnasketa autonomoko ekipoetako botilen enpresa kargatzailea (EP-5).

– Arnasketa autonomoko ekipoetako botilak aldizka ikuskatzeko enpresa (EP-5).

– Arnasketa autonomoko ekipoetako botilak bisualki ikuskatzeko enpresa (EP-5).

– Gasa kargatzen duen enpresa (EP-6).

2.- Presio-ekipoen erregelamenduarekin erlazionatuta dauden enpresen espezialitate eta kategoriarengatiko eskakizunei buruzko VII. eranskina aldatzen da, eta honako era honetan geratzen da idatzita:

Tercera.– Las centrales generadoras de energía eléctrica existentes reguladas por de la ITC MIE AP-16 deberán presentar en la correspondiente Oficina Territorial, en un plazo de 4 meses desde la entrada en vigor del REP, el plan de fechas previstas para las inspecciones periódicas de los equipos.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Se deroga la Orden de 30 de marzo de 1987, por la que se dictan normas para la correcta aplicación del Reglamento de Aparatos a Presión (BOPV 02-05-1987).

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– 1.– Se modifica el anexo VI de la Orden de 10 de abril de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla el Decreto 63/2006, de 14 de marzo, por el que se regulan los Carnés de cualificación individual y las empresas autorizadas en materia de seguridad industrial, de manera que las categorías de empresas relacionadas con el reglamento de equipos a presión que quedarán redactadas de la siguiente manera:

– Empresa Instaladora de equipos a presión. Categoría 1 (Solo equipos que no requieren proyecto de instalación).

– Empresa Instaladora de equipos a presión. Categoría 2 (Cualquier tipo de equipo).

– Empresa Reparadora de equipos a presión. Categoría 1 (Solo equipos que no requieren proyecto de instalación).

– Empresa Reparadora de equipos a presión. Categoría 2 (Cualquier tipo de equipo).

– Empresa recargadora de botellas de equipos de respiración autónoma (EP-5).

– Empresa para inspección periódica de botellas de equipos de respiración autónoma (EP-5).

– Empresa para inspección visual de botellas de equipos de botellas de equipos de respiración autónoma (EP-5).

– Empresa recargadora de gases (EP-6).

2.– Se modifica el anexo VII sobre las exigencias por especialidad y categoría de empresas relacionadas con el reglamento de equipos a presión que quedarán redactadas de la siguiente manera:

ENPRESA MOTA	PERTSONALEKO GUTXIENEKO BEHARRAK	GAITUTAKO TEKNIKARI TITULUDUNAREN BEHARRA	EZBEHARRAGATIKO ASEGURU POLIZAREN GUTXIENEKO ZENBATEKOA (euro)
1. kategoriako presio-ekipoen instalatzailea (instalazio-proiekturik behar ez duten ekipoak soilik).	Soldatzaile homologatua, lotura soldatuak erabiltzen baditu (*).	Bai	600.000
2. kategoriako presio-ekipoen instalatzailea (edozein ekipo mota)	Soldatzailea, titulazio homologatuarekin (*).	Ez	300.000
Presio-ekipoen konpontzailea. 1. kategoria (instalazio-proiekturik behar ez duten ekipoak soilik).	Soldatzailea, titulazio homologatuarekin (*).	Ez	300.000
Presio-ekipoen konpontzailea. 2. kategoria (edozein ekipo mota).	Soldatzailea, titulazio homologatuarekin (*).	Bai	600.000
Arnasketa autonomoko ekipoetako botilen enpresa kargatzailea (EP-5)	Gaiari buruzko jakintzak dituen espezialista	Ez	542.558
Arnasketa autonomoko ekipoetako botilak aldizka ikuskatzeko enpresa (EP-5)	Gaiari buruzko jakintzak dituen espezialista	Bai	542.558
Arnasketa autonomoko ekipoetako botilak bisualki ikuskatzeko enpresa (EP-5)	Gaiari buruzko jakintzak dituen espezialista	Ez	542.558
Gas-botilak kargatzen dituen enpresa (EP-6).			542.558

(*) Oharra: soldatzaile titulazioak homologatuta egon behar du, egiten diren jardunetarako egokiak diren soldadura-prozeduren arabera.

TIPO DE EMPRESA	*NECESIDADES MINIMAS DE PERSONAL*	*NECESIDAD DE TECNICO/A TITULADO/A COMPETENTE*	*CUANTIA MINIMA DE LA POLIZA DE SEGURO POR SINIESTRO (euros)*
Instaladora de equipos a presión de Categoría 1 (Solo equipos que no requieren proyecto de instalación).	*Soldador/a con homologación si utiliza uniones soldadas (*).*	*Sí*	*600.000*
Instaladora de equipos a presión Categoría 2 (Cualquier tipo de equipo).	*Soldador/a con titulación homologada (*)*	*No*	*300.000*
Reparadora de equipos a presión. Categoría 1 (Solo equipos que no requieren proyecto de instalación).	*Soldador/a con titulación homologada (*)*	*No*	*300.000*

TIPO DE EMPRESA	*NECESIDADES MINIMAS DE PERSONAL*	*NECESIDAD DE TECNICO/A TITULADO/A COMPETENTE*	*CUANTIA MINIMA DE LA POLIZA DE SEGURO POR SINIESTRO (euros)*
Reparadora de equipos a presión. Categoría 2 (Cualquier tipo de equipo).	*Soldador/a con titulación homologada (*)*	*Sí*	*600.000*
Empresa recargadora de botellas de equipos respiratorios autónomos (EP-5)	*Especialista con conocimientos en la materia*	*No*	*542.558*
Empresa para inspección periódica de botellas de equipos de respiración autónoma (EP-5)	*Especialista con conocimientos en la materia*	*Sí*	*542.558*
Empresa para inspección visual de botellas de equipos de respiración autónoma (EP-5)	*Especialista con conocimientos en la materia.*	*No*	*542.558*
Empresa recargadora de botellas de gases (EP-6)			*542.558*

(*)Nota: la titulación del soldador/a deberá estar homologada de acuerdo con el/los procedimiento/s de soldadura adecuado/s a las actuaciones que realicen.

3.- VIII. eranskineko enpresa baimenduaren baimen-egiaztagirietan honako testu hauek adieraziko dira:

3.– En los certificados de autorización de empresa autorizada del anexo VIII se indicarán los siguientes textos:

Erref.:	ESPEZIALITATEA
EIP1	PRESIO EKIPOEN INSTALATZAILEA 1. KATEGORIA (Instalazio-proiekturik behar ez duten ekipoak soilik)
EIP2	PRESIO EKIPOEN INSTALATZAILEA 1. KATEGORIA (Edozein ekipo mota)
ERP1	PRESIO EKIPOEN KONPONTZAILEA 2. KATEGORIA (Instalazio-proiekturik behar ez duten ekipoak soilik)
ERP2	PRESIO EKIPOEN KONPONTZAILEA 2. KATEGORIA (Edozein ekipo mota)
EPA	ARNASKETA AUTONOMOKO EKIPOEN BOTILEN KARGATZAILEA (EP-5).
EPB	ARNASKETA AUTONOMOKO EKIPOEN BOTILAK ALDIZKA IKUSKATZEKO ZENTROA (EP-5).
EPC	ARNASKETA AUTONOMOKO EKIPOEN BOTILAK BISUALKI IKUSKATZEKO ZENTROA (EP-5).
EPD	GAS BOTILAK KARGATZEKO ENPRESA (EP-6).

Ref.	*ESPECIALIDAD*
EIP1	*INSTALADORA DE EQUIPOS A PRESIÓN CATEGORIA 1* *(Solo equipos que no requieren proyecto de instalación)*
EIP2	*INSTALADORA DE EQUIPOS A PRESIÓN CATEGORIA 2* *(Cualquier tipo de equipo)*
ERP1	*REPARADORA DE EQUIPOS A PRESIÓN CATEGORIA 1* *(Solo equipos que no requieren proyecto de instalación)*
ERP2	*REPARADORA DE EQUIPOS A PRESIÓN CATEGORIA 2* *(Cualquier tipo de equipo)*
EPA	*RECARGADORA DE BOTELLAS* *DE EQUIPOS DE RESPIRACIÓN AUTÓNOMA (EP-5).*
EPB	*CENTRO DE INSPECCION PERIÓDICA DE BOTELLAS* *DE EQUIPOS DE RESPIRACIÓN AUTÓNOMA (EP-5)*
EPC	*CENTRO DE INSPECCION VISUAL DE BOTELLAS* *DE EQUIPOS DE RESPIRACIÓN AUTÓNOMA (EP-5).*
EPD	*RECARGADORA DE BOTELLAS DE GASES (EP-6).*

4.- IV.2 eranskinean galdaren operadore industrialen prestakuntza-ikastaroentzat ezarritako gutxieneko iraupena aldatzen da, eta 50 ordukoa izango da.

Bigarrena.- PEEaren aplikazioan erabili beharreko dokumentuek agindu honen eranskinetan adierazitako ereduez bestelako batzuk erabil ditzakete, betiere eranskin horietan aurreikusitako datu guztiak jasotzen badituzte.

Hirugarrena.- PEEaren aplikazioan jarduneko agenteek jaulkitzen dituzten egiaztagiriak dagokion Lurralde Bulegoan aurkeztu beharko dira hori bereziki adierazi denean, eta gainerako egiaztagirietarako (segurtasunbalbulen tara, A mailako ikuskapenak, su-itzalgailuak edo gas industrialetako botilak kargatzea, arnas ekipoetarako edo gas industrialetarako botilen ikuskapen bisualak edo aldizkakoak, eta abar), jarduneko agenteek gorde egin beharko dituzte eta Bulego horien eskura eduki beharko dituzte beren jarduna kontrolatzeko.

Laugarrena.- Gaian eskumena duen zuzendariari ahalmena ematen zaio agindu honi gaineratutako eranskinak aldatzeko edo dokumentu berriak gaineratzeko, baita PEEaren eta agindu honen betekizunen aplikazio praktikorako gidaliburu teknikoak lantzeko ere.

Bosgarrena.- Xedapen hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 27a.

Industria eta Berrikuntzako sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

4.– Se modifica la duración mínima de los cursos de formación de los operadores industriales de calderas indicada en el anexo IV.2 que pasará a ser de 50 horas.

Segunda.– Los documentos a utilizar en la aplicación del REP podrán presentar modelos diferentes a los indicados en los anexos de la presente Orden, debiendo contener los datos previstos en los citados anexos.

Tercera.– Las certificaciones que se emitan por los agentes actuantes en aplicación del REP deberán presentarse en la correspondiente Oficina Territorial cuando expresamente se haya indicado, para el resto de certificaciones (tarado de válvulas de seguridad, inspecciones de nivel A, recarga de extintores o botellas de gases industriales, inspecciones visuales o periódicas de botellas de equipos respiratorios o de gases industriales, etc.), los agentes actuantes deberán conservarlas a disposición de las indicadas Oficinas para el control de sus actuaciones.

